Euskal Herriko ibaiak (_Izenak_ 4) liburuaren aurkezpena

(Euskaltzaindiaren egoitza, Bilbo 2014-11-06)

Andres Iñigo

Euskaltzaindiaren zereginen artean Onomastika batzordeari eskatzen zaion lana da izenak biltzea, aztertzea, sailkatzea eta horietako bakoitzari dagokion forma egokia edota arautua proposatzea; ondoren, izen horiek argitaratu eta ezagutzera ematea euskararen normalizazioa, onomastikaren alorrean ere, lortu ahal izateko.

Batzordeak bide horretatik jo du orain arte, eta egindako ibilbidearen lekuko dira, besteak beste, pertsona izenei, deiturei, udalerri eta gainerako biztanle entitateei, toponimia txikiari eta abarri buruz argitara emandako lanak, hala nola, izendegiak, irizpenak eta beste hainbat lan eta proposamen. Oraingo honetan toponimiaren atal berezi bati tokatu zaio txanda, Euskal Herriko hidrografia nagusiari, alegia, sare hori osatzen duten 414 ibai nagusien izenak biltzen dituen lanari.

Onomastika batzordeak 2008tik 2011ra izan zuen zeregin hau esku artean eta tarte horretako 29 bilera eskaini zizkion izen horiek aztertzeari eta eztabaidatzeari. Lan luzea eta neketsua benetan, ez baitzen batere erraza izan 414 ibai horien izenak identifikatzea eta horien guztien erabilera egokia finkatzea. Zer dela eta? Esaterako, agiri zaharrak arakatzean konturatzen gara ibai garrantzitsu batzuk salbu, gainerako gehienek ez dutela mendeetan zehar izen propiorik izan. Ia beti tokian tokiko izen generikoen bitartez aipatu izan dira, euskarazko *ibai, uraundi, erreka, uhaitz, ugalde, lats*... edota gaztelaniazko *río, río principal, río caudal, agua principal, regata, arroyo*... gisako generikoez, hain zuzen ere. Hortaz, gaur egun erabiltzen direnak nahiko izendapen berriak dira. Batzuetan sorburuaren toki izena hartu izan da erreferentziatzat, beste batzuetan, bere ibilbide linealean zeharkatzen dituzten lekuetako toponimoren batena, lekuan lekuarena normalean eta, honen ondorioz, egiaztatzen ahal da zenbaitetan ibai bati hiruzpalau izen ematen zaizkiola. Ustez tradizio luzeko izen batzuk ez dira hain aspaldikoak, gehienez ere XIX. edo XX. mendeaz geroztik bataiatuak izan baitira, arrazoi desberdinak direla medio, hala nola, une jakin batean historialari nahiz geografo ikertzaile batek jarritako izendapenez, edo militarrek, administrazioetako arduradunek edota bestelako erakunderen bateko teknikariek beren lan kartografiko modernoetan islatutakoez.

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak paratutako lan honi, Osoko bilkuraren onespenarekin batera arau izaera eman zitzaion. Horren ondorioz, Akademiaren 166. araua da. Euskaltzaindiak ohi duen bezala, araua onartu ondotik, bere webgunearen bidez ezagutzera eman zuen. Hala ere, gai honek erabilera praktikoan duen interesa kontuan izanik, esate baterako, irakaskuntzan, argitalpenetan, esatarien lanetan, hedabideetan, administrazioen zereginetan eta bestelako alorretan, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak erakundearen toponimia lanak gizarteratzeko sortu zuen *Izenak bilduma* honetako liburuki berezi batean argitaratzea erabaki zuen. Helburu hori modurik praktikoenean erdietsi ahal izateko, Euskal Herrian izaera ofiziala duten hiru hizkuntzetan, hurrenez hurren, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez eman dira testuak, zerrendak eta mapak.

Orain Patxi Galék azalduko dizkigu lanaren alderdi zehatzago batzuk. Patxi onomastika batzordeko kide da, baina horretaz gain, bera izan zen lan honen diseinuan eta materialen prestaketan gidaritza hartu zuena, ibaien kokapen praktikorako bederatzi kapitulu horietako bakoitzaren ondotik ageri den mapa eskematikoa irudikatu zuena eta orain ere argitalpen honetako prestaketan parte zuzena izan duena.

Amaitu aitzinetik, nire esker onak adierazi nahi ditut. Lehenik, zeregin honen prozesuan parte zuzena izan zuten Onomastika batzordeko kideei eta aipatutako arrazoiengatik, Patxi Galéri. Halaber, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari lan hau *Izenak bilduman* gizarteratzeko hartutako erabakiagatik. Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiari, argitalpen honen alde erakutsitako interesagatik eta xede horretarako emandako babesagatik.